



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/01/31

## **Bizkaiko toki erakudeen "%58ak" ez eutsan hornitzaileei egindako ordainketen inguruko informaziorik emon Aldundiari**

Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak, EH Bilduk eskatutako agerraldian, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren inguruko 5/2013 Foru Arauak 2014. eta 2015. ekitaldietan izan dauen betete mailaren inguruko azalpenak emon ditu gaur goizean Batzar Nagusietan. Arauak Bizkaiko 128 Toki Erakundetan dauka eragina. Ikasturte honetarako egin beharrekoen artean, Aldundiak, hornitzaileei egindako ordainketen inguruan udaletatik jasoten dauen informazioa handitzea hartu dau helburuen artean. “Orokorrean”, udalek bete egiten ditue arauak marketan dituan betebeharrak, azpimarratu dau, atal horri jagokonez “izan ezik”. Izan be, atal horretan, lurraldeko udalerrien “%58ak” oraindino ez dau eskatutako informazioa bialdu.

Bengoetxeak adierazo dauenez, horrek ez dau esan gura Aldundiak, finantza arloko tutore moduan, marketan dituan eskakizun ekonomikoak beteten ez diranik, udalen edo mankomunidadeen “%95ak” parametroak modu “positiboan” beteten dituelako. Gainera, diputatuak adierazo dau aztertutako azkenengo urtea –2015– “trantsizinoko” urtea izan dala esan daitekela, foru eta udal hauteskundeak dirala eta gobernu askotako “kolore” politikoa aldatu egin dalako.

Bengoetxeak urteko txostenetatik ataratako beste datu esanguratsu batzuk be emon ditu zorraren, aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta hornitzaileei egindako ordainketen inguruan. Holan, esan dauenez, egonkortasunari jagokonez, 2013an “sei” udal erakundek ez eben printzipio hori bete, 2014an “bik” eta 2015ean “hiruk”.

Zorraren helburuari jagokonez (zorpetzea ez da izan behar finantzaz kanpoko diru-sarreraren %60tik gorakoa), 2013an “bi” udalek ez eben bete, eta beste “bostek” gauza bera egin eben 2014an eta 2015ean. Azkenengo urte horretan lau udalek errepikau egin eben egoerea, eta udalerrri bat lehen aldiz sartu zan zerrendan. Azken hori Gizaburuaga izan zan. Aldundiak udalerrri horretako “diru-sarrerak asko jaitsi dirala” ikusi dau. Gastu-arauari jagokonez, Bengoetxeak esan dauenez, 2014an “22 izan ziran bete ez ebenak”, eta 2015ean kopuru hori “27ra” heldu zan.

Hornitzaileei egiten jakezan ordainketei jagokonez, toki erakunde bakarra izan zan ezarritako ordainketarako epealdia behar baino gehiago luzatu ebana, baina Aldundiak onartu dauenez, ez dau jaso toki erakundeen “%58aren” informaziorik. Holan, eta Batzarretako taldeek galdetuta, Bengoetxeak adierazo dau Aldundiak eskura dituan “baliabide guztiak” erabiliko dituala egoera hori aldatzeko. Hori bai, azken aldian “informazino gehiago” jasoten dala “hautemon dabe” Aldunditik.

MARTXAN DAGOZ BIZKAIA GOAZEN 2030 PLANAREN BARRUKO EKINTZA GUZTIAK



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Goazen 2030 Planean jasoten ziran lehentasunezko 120 ekintzetatik “guztiak” jarri ditu martxan. Horreen artetik “%73” gauzatzeko prozesuan dagoz, “%12” amaituta dagoz, eta “%15” diseinuko fasean, Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusiak, EH Bilduk eskatuta, eskaini dauen agerraldian gaur aurkeztu dituan datuek adierazoten dabenez.

Dokumentu horrek, 2015-2019 epealdirako Bizkaiarentzat lehentasunezkoak diran eta “Aldundiaren eguneroko beharra osatzen dabenek” 120 proiektu jasoten ditu. Lau ardatzetan banatzen dira: jarduera ekonomikoa eta kalidatezko enplegua; gizarte eta lurralde kohesinoa eta aukera bardintasuna; administrazio modernoa eta arduratsua; eta Bizkaia munduagaz lotzea.

Lehenengo ardatzean, Rementeriak azpimarratu dituan lorpenen artean, enplegu publikoko 176 plaza deitu izana; gaiztasunak dituen kolektiboei zuzendutako laneratze programei esker enplegua lortu dabenek 207 pertsonak; enpresa barritzaileentzako eta mikroenpresentzako Bat eta Mikro funtsen laguntzeagaz sortu diran 138 enpleguak; 210 pertsonak parte hartu dabenek hamaika enplegu haztegiak; edo enpresa txikien eta ertainen eta autonomoen 380 inbertsino-proiektuak dagoz.

Gizarte eta lurralde kohesinoaren eta aukera bardintasunaren ardatzean, Ahalduen nagusiak bidesari politika barria aitatu dau alde batetik, eta baita Gerediaga-Elorrio saihesbidearen beharrak bukatu izana, Durangoko BI-623 errepideko beharrak, Orueta eta Santo Domingoko gainaren arteko BI-631 errepideko beharrak eta Morgan BI-623 errepideko beharrak be. Gainera, bigarren ardatz horretan, Aldundiak tutelapeko 334 adingaberi familiatan harrerea emotea bideratu dau, eta 140 plaza dituan beste goitza bat zabaldu dau, beste gai batzuen artean.

Hilebete bitan 4.500 pertsonari arreteak eskini deutesen herritarren arreta integraleko bulego pilotua zabaldu izana Durangon da Administrazio modernoaren eta arduratsuen ardatzean izandako lorpenetako bat, eta arlo horretan dagoz iruzurraren kontrako burrukea egiteko planak onetsi izana, Aldundiaren eta foru sektore publikoko erakunde guztien gardentasun atari guztiak aktibatu izana eta webgunea eguneratu eta hobetu izana.

Bizkaia munduagaz lotzeari jagokonez, 2016an izandako lorpenak, Smithsonian Folklife Festival izenekoa moduko nazinoarteko foroetan izandako presentzia bultzatu izana azpimarratu behar da, eta baita Europa mailako "Silver economy" sariaren buru dan taldean Aldundia sartu izana, nazinoartean eragin handia izan dabenek hamabi ekitalditan eta Bilbo-Bizkaia jomugea sustetako zeharkako 68 ekintzatan parte hartu izana ahaztu barik. Horreei guztiei turisten etorreraren inguruko datuak gehitu behar jakez: 1,3 milioi bisitari 2016an, horreetatik 10etik 4, atzerritarrek.

## BATZARRETAKO TALDEAK

Batzarretako talde guztiek ez ditue datu horreek modu berean baloratu. EH Bilduk, Arantza Urkaregi batzordekidearen berbetan, gauzatutako ehunekoa “ez dala horrenbesterakoa” izan azpimarratu dau, eta “bateraezintasunaren edo bardintasunaren inguruko” foru arauak eta “nazinoarteko lankidetzaren plana edo Bizkaiko kultur agerraldien mapea” oraindino martxan jarri ez izana kritikatu dau. Bere berbetan, proiektu horreek guztiak 2016rako martxan egon behar ziran.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Talde mistoak, lurraldeko enpresa egitureari laguntzeko ekintzak “indartzeko” eskatu deutso Aldundiari, izan be, nazinoartean zabalik dagon panorama barriak, orain urtebete plana aurkeztu zanean egoanaren oso desbardina danak, Brexita eta Estatu Batuetan presidente barria hor egonda, oso etorkizun “baltza eta arduratzeko modukoa” erakusten dau.

Javier Ruiz PPko bozeroalearen eretziz, Bizkaia Goazen 2030 estrategia proiektuen “antzezpena” baino ez da, “horreetako asko aurretik be martxan egoazelako”. Bere eretziz, Gobernu programaren “izen aldaketea” baino ez da.

Ildo horretan, Asun Merinero Podemos Bizkaia taldeko ordezkariaren eretziz, planak argi eta garbi erakusten dau Foru Gobernuaren “propagandarako makineriak ondo baino hobeto funtzionetan jarraitzen dauela”. Zalantzan jarri ditu sortutako enpleguaren kalidadea eta iraupena, eta “Bizkaian dagon gizarte bazterketaren ehunekoak behera egin ete dauen” galdetu dau. Bere berbetan, Bizkaiak “ez dauka hobeto altxetako ezelango arrazoirik, oinarritzko arazoek konpondu barik jarraitzen dabelako”.

Foru Gobernua eusten daben talde bien eretziz –EAJ-PNV eta PSE-EE–, lehenengo balantzea “ona” dala esan daiteke, eta, azpimarratu dabenez, horreek ez dira Aldundiak aurrera daroazan ekintza bakarrak. “Demokrazia gehiagorako” aukerea emoten dau eta “gardentasunaren” eta “konpromisoak betetearen” sinonimoa da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
31/01/2017

## **El "58%" de las entidades locales de Bizkaia no ofreció a la Diputación información de sus pagos a proveedores**

La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha ofrecido esta mañana en Juntas Generales, en una comparecencia solicitada por EH Bildu, un balance resumido del grado de cumplimiento de la Norma Foral 5/2013 de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, durante los ejercicios 2014 y 2015, regulación que afecta a 128 Entidades Locales de Bizkaia. Entre los deberes para el presente curso, la Diputación se ha propuesto ampliar la información que recibe de los ayuntamientos en relación a los pagos a proveedores. "En general" los ayuntamientos cumplen con las obligaciones que les marca la norma, ha destacado, "excepto" en este capítulo en donde todavía el "58%" de los municipios del territorio no han enviado la información requerida.

Según Bengoetxea, esta circunstancia no es impedimento para que no se cumplan las exigencias económicas que marca la Diputación en su papel de tutela financiera, ya que el "95%" de los municipios o mancomunidades cumplen con los parámetros de forma "positiva". Además, la diputada ha señalado que el último año analizado -2015- se puede considerar "de transición" debido a las elecciones forales y municipales que hicieron cambiar muchos gobiernos "de color" político.

Bengoetxea ha ofrecido otros datos significativos extraídos de los informes anuales sobre deuda, estabilidad presupuestaria, regla de gasto y el pago a proveedores, que se pueden consultar en la web de la Institución foral. Así, ha significado que, respecto a la estabilidad, "seis" entes municipales incumplieron este principio en el año 2013, "dos" lo hicieron en 2014, y "tres" en 2015.

En cuanto al objetivo de deuda (endeudamiento no superior al 60% de los ingresos no financieros), en 2013 no llegaron a pasar el corte "dos" ayuntamientos, y otros "cinco" no lo hicieron, tanto en el 2014 como en el 2015. Durante este último año, cuatro consistorios repetían y otro municipio entró en la lista por primera vez. Fue el caso de Gizaburuaga en donde la Diputación ha notado que "han bajado muchos los ingresos". En cuanto a la regla de gasto, Bengoetxea ha informado de que, en 2014, hubo "22 incumplimientos", que pasaron a ser de "27" en 2015.

En lo que se refiere a los pagos a proveedores, sólo una entidad local alargó más de la cuenta el periodo de pago establecido, si bien la Diputación ha reconocido que no obtuvo información del "58%". En este sentido y preguntada por los grupos junteros, Bengoetxea ha asegurado que la Diputación pondrá "todos los medios" a su alcance para revertir la situación, aunque "han notado" que actualmente se recibe "más información".

EN MARCHA LA TOTALIDAD DE LAS ACCIONES DE BIZKAIA GOAZEN 2030



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La Diputación foral de Bizkaia ha puesto en marcha la “totalidad” de las 120 acciones prioritarias incluidas en el Plan Bizkaia Goazen 2030 , de las que “un 73%” están en ejecución, “un 12%” se encuentran finalizadas, y “un 15%” en su fase de diseño, según los datos aportados por el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, en una comparecencia ofrecida hoy en las Juntas Generales solicitada por EH Bildu.

Este documento contempla 120 proyectos prioritarios para Bizkaia para el periodo 2015-2019, "que complementan el trabajo diario de la Diputación" y se distribuyen en cuatro ejes: actividad económica y empleo de calidad; cohesión social y territorial e igualdad de oportunidades; administración moderna y responsable; y conexión de Bizkaia con el mundo.

En el primer eje, Rementeria ha destacado logros como la convocatoria de 176 plazas de empleo público, las 207 personas que han conseguido empleo gracias a programas de inserción laboral para colectivos con dificultades, los 138 empleos creados con apoyo de los fondos Bat y Mikro para empresas innovadoras y microempresas, las once lanzaderas de empleo en las que participan 210 personas o los 380 proyectos de inversión de pymes y autónomos.

En el eje de la cohesión social y territorial y la igualdad de oportunidades, el diputado general ha enumerado por un lado la nueva política de peajes, la finalización de las obras de la Gerediaga-Elorrio, las obras de la BI-623 en Durango, las obras en la BI-631 entre Orueta y el alto de Santo Domingo y las obras en la BI-2121 en Morga. En este segundo eje además la Diputación ha facilitado el acogimiento familiar de 334 menores tutelados y ha abierto una nueva residencia con 140 plazas, entre otras cuestiones.

La apertura en Durango de una oficina piloto de atención integral a la ciudadanía, y que en sólo dos meses ha atendido a 4.500 personas, es uno de los logros conseguidos en el eje de la Administración moderna, cercana y responsable, en el que también se encuentran la aprobación de planes de lucha contra el fraude, la activación de todos los portales de transparencia de la Diputación y de las entidades del sector público foral, y la actualización y mejora de su página web.

En cuanto a la conexión de Bizkaia con el mundo, los hitos logrados en 2016 son el impulso de la presencia en foros internacionales, como el Smithsonian Folklife Festival, la integración de la Diputación en el equipo que lidera el premio europeo "Silver economy", la presencia en doce eventos de relevancia internacional y 68 acciones indirectas para promocionar el destino Bilbao-Bizkaia, y los datos de afluencia de turistas: 1,3 millones de visitantes en 2016, de los cuales 4 de cada 10 son extranjeros.

## GRUPOS JUNTEROS

Los grupos junteros han valorado estos datos de forma distinta. EH Bildu, en boca de su apoderada Arantza Urkaregi, ha destacado que el porcentaje ejecutado “no le parece tanto” , y ha criticado que no se hayan puesto en marcha todavía, las normas forales “de incompatibilidad o de igualdad”, así como “el plan de colaboración internacional o el mapa de manifestaciones culturales de Bizkaia”, proyectos que tenían que estar en marcha en 2016, según ella.

El grupo mixto ha pedido a la Diputación “reforzar” las acciones destinadas a apoyar al tejido empresarial del territorio ya que el nuevo panorama internacional - Brexit y la irrupción de una



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

nueva presidencia en EE UU-, muy diferente al de hace un año cuando se presentó el plan, dibujan un horizonte "negro y preocupante".

Para el portavoz del PP, Javier Ruiz, la estrategia Bizkaia Goazen 2030 viene a ser una "teatralización" de proyectos que "muchos de ellos ya se habían puesto en marcha". A su juicio, no deja de ser "un cambio de nomenclatura" del programa de Gobierno.

En esta línea, para la representante de Podemos Bizkaia, Asun Merinero, el plan es la constatación de que la "maquinaria propagandística" del Gobierno foral "sigue funcionando bien". Ha puesto en duda la calidad del empleo creado y su duración, y ha preguntado si "ha disminuido el porcentaje de exclusión social en Bizkaia". Según ella, Bizkaia "no tiene motivos para levantarse mejor, porque no se han paliado los problemas fundamentales".

Para las dos formaciones que sustentan al Gobierno foral –PNV y PSE-EE- el primer balance se puede considerar "bueno", advirtiendo de que no son las únicas acciones de la Diputación. Poner "negro sobre blanco" las acciones de Gobierno prioritarias y dar cuenta de ellas es "más democracia" y sinónimo de "transparencia" y de "cumplir los compromisos".